

EUSKARA AKTIBATZAILEEN

GIDA-LIBURUA



EUSKARALDIA
euskararen erabilera aktibatzeko mugimendua



Egile-eskubiderik gabeko lana;
har ezazu, erabili eta zabaldu
nahi bezala.

Lizentziaren ezaugarriak ikusteko:

[https://creativecommons.org/
publicdomain/zero/1.0/deed.eu](https://creativecommons.org/publicdomain/zero/1.0/deed.eu)

EUSKARA AKTIBATZAILEEN

GIDA-LIBURUA



EUSKARALDIA
euskararen erabilera aktibatzeko mugimendua



AURKIBIDEA

Zer da hau?	7
Zergatik mugitzen gaitu Euskaraldiak?.....	9
Antolaketa eta aktibazioa, arrakastarako gakoak.....	11
Funtzionamendu eraginkorra, bide	12
Euskaltzaleak antolatu eta saretzeko Plana.....	14
Mugarriak	15
1. Aldatu jarrera.....	17
2. Harremanak sortu	23
3. Sare bat irudikatu	31
4. Sare bat osatu	37
5. Taldearen funtzionamendua finkatu.....	47
6. Ekintzak antolatu.....	57
7. Euskaraldia antolatu	63
8. Indarberritu.....	71

ZER DA HAU?

Euskararen erabileran eragiteko daukagun tresna-bide-modu masiboena da EUSKARALDIA.

Eta berebiziko garrantzia du, premiazkoa delako erabilera sustatzen jarraitzea. Azken hamarkadatan euskararen ezagutza hedatzea lortu dugu, baina hori ez da nahikoa: hiztunak aktibatu eta euskara erabiltzea da, hizkuntzaren normalizaziorako behar nagusia.

Horregatik, ez dugu nahi Euskaraldia egun jakinetara mugatzen den ariketa soziala izatea soilik. Nazio mailan, euskararen lurralde osoan, eta denok batera egiten dugun dinamika hau zabaltzea egin nahi dugu denboran eta gizartean. Laguntzeko prest?

Mugimendu hori sendotzen eta aktibatzen ekarpena egin nahi duzuenoi laguntzeko sortu da gida-liburu hau, trebakuntza praktikoa eskaintzera datorrena.

Euskaraldia ez da kanpaina edo festa bat; ariketa soziala da. Ezinbestekoa, baina ez nahikoa. Eta euskaraz bizi nahi dugunok, beste dimentsio bat eman nahi diogu ariketari.

Hizkuntza-inertziak ez dira oso begibistakoak, baina oso errotuta daude. Askok ez dugu izan nahi ibaiak itsasora daraman enborra, baizik eta korrante nagusiari aurre eginez bizi den eta gorantz doan amuarraina.

Euskararen erabilera aktibatuko duen mugimendua sortu nahi dugu. Kaleko euskalgintza, euskaldun “arruntak” mugiarazi. Euskal Herri osoan euskararen erabilera aktibatzeke prest dagoen jendea batu, trebatu, antolatu eta dinamika soziala indartu. Gizartea eraldatu. Horiek dira helburuak. Ados bazaude, liburuxka hau zure interesekoa izango da.

Orriotan, denentzat erabilgarriak izan daitezkeen ideiak eta proposamenak biltzen ahalegindu gara, leku guztietan baitugu mugimendua non indartua edo nora zabaldua.

Egin dugun bidean urrats bat aurrera egitera goaz... eta ahal bada, bat baino gehiago! Nahi al duzu gurekin bat egin?

Batu ditzagun indarrak, elkarrekin, euskarari, han eta hemen, merezi duen lekua emateko!

Zergatik mugitzen gaitu Euskaraldiak?

Hizkuntza gutxitu bat biziberritzeko nahia ahalegin noblea da, interes indibidual, materialista eta ekonomikoak nagusi diren gizarte honetan.

Euskaraldiak sakontasun emozional kolektiboa du:

- Milaka eta milaka ari gara, aldi berean, Senperen, Lizarran eta Bilbon.
- Nahiak, aldarriak, erronkak, batu egiten gaitu.
- Elkar indartzen ari gara, elkarrekin eragiten, gizartea aldatzen.
- Hunkigarria da. Ilusioa pizten du.
- Eta badu epikatik ere: zerbait handia egitera goaz!

Mundu osoan ez da egin halako ariketa sozial masiborik!
Bagara nor!

Denontzako lekua dago Euskaraldian. Euskaraldia ikusteko eta bizitzeko modu ezberdinak daude. Arnasguneetakoek eta hiriguneetakoek ezberdin bizi dezakete, gazteek eta helduek, “festan” parte hartu nahi dutenek eta modu oso kontzientean bizi dutenek, erabileran urrats praktikoa ematera datozenek edo aldarrikapen aktibo moduan parte hartzen dutenek... Ona da aniztasun hori, eta bakoitzak bere ekarpena egiteko aukera izan behar du.

Zabaltasun hori eta handiagoa du Euskaraldiak.

EUSKARALDIA BEHAR-BEHARREZKOA DUGU!



- Euskararen erabilera erdigunean kokatzen du.
- Eraginkorra da: milaka herritar euskaraz jarri ditu, erdaraz egiten zuten egoeratan.
- Kontzientzia linguistikoa pizten du, hizkuntza ohiturak auzitan jarritz.
- Ez da euskararen aldeko kanpaina hutsa.
- Hitzunak ahalduntzen laguntzen du.
- Euskaldun pasiboak prestigiatzen-motibatzen laguntzen du.
- Nazio mailakoa eta masiboa izanik, batzen gaituen ekimena da.
- Euskara, agenda eta iritzi publikoaren lehen lerroan jartzen du.
- Herritarren ilusioak eta zailtasunak, lorpenak eta inkoherentziak azaleratzen ditu.

Antolaketa eta aktibazioa, arrakastarako gakoak

Beharrezkoa da, Euskaraldiaren prestaketa-lanei ekiterakoan, hasiera-hasieratik indar berezia egitea barne antolaketan. Honen arabera izango baita, hein handi batean, ariketa sozialaren arrakasta eta, garrantzitsuagoa dena, erabilera bultzatzeko sortu/indartu nahi dugun mugimenduarena.

Oso egituraketa-maila desberdinak ditugu auzoen edo herrien arabera. Orokorrean, ordea, gizartean gehiago eragin nahi badugu, **oinarri zabalagoa** behar dugu kasu guztietan.

Gehienetan ez gara hutsetik abiatzen. Aurreko Euskaraldietako Herri Batzordeak ere hor daude, euskalgintzako talde eta egiturak, euskal kultura sustatzen duten taldeak...

Zenbat eta jende gehiago eta berriagoa inplikatu antolaketan, orduan eta aukera gehiago erabileran jauzi kualitatiboa emateko.

Horretarako da gida-liburu hau: herritarrak euskararen erabilera aktiboagora erakartzeko eta Euskal Herri osoan euskararen erabileraren aldeko mugimendua aktibatzeke. Asko da orain arte egindakoa. Baina jauzi bat eman nahi genuke.

4 FASE bereizten ditugu Euskaraldiaren antolaketan:

1. Barne antolaketa
2. Aurrelanketa
3. Ariketa egunak
4. Ariketa ostea

Aurreneko biak estuki lotuta daude eta etengabe landu beharrekoak dira. Jendea erakarri eta indarrak metatzea da helburua bietan.

Euskararen edo Euskaraldiaren inguruan antolatzen dugun ekintza txikienak ere, zerbait zehatza lortzeko ez ezik, sarea trinkotzeko ere balio behar du.

Misio kolektibo batean ari gara, euskaldun guztion hobe beharrez.

Funtzionamendu eraginkorra, bide

Euskaraldiaren bidez eragin zabala lortzeko, Euskal Herri osorako mugarri argi batzuk behar ditugu, indarrak batu eta herri denetan batera joateko:

Herrien inplikazioa / Entitateen sustapena / Herritarren inplikazioa / Txapen banaketa / Ariketa bera...

Bestalde, malgutasuna eduki behar dute herriek.

- Irizpide orokorretatik at, auzo/herri bakoitzak autonomia osoz aritu.
- Antolaketa eta Euskaraldia bera, egoera eta errealitate bakoitzera egokitu.
- Herritarrei parte hartzeko bideak eta metodoak eskaini.
- Hainbatetan, teknikariek eta liberatuek pisu handia dutenez, herritarrak maiz ez dira hainbeste inplikatzeko ("esango digute zer egin"); eta autonomia balute, modu sortzaileagoan jokatu lukete askok.

GOAZEN ONDO PASATZERA



- Antolatzaile guztiek motibazioa eta, batez ere, trebakuntza behar dute:
 - Herri Batzordea osatzeko herritarrak nola lortu
 - Taldea nola motibatu eta sendotu.
 - Herriko elkarteak nola inplikatu...
- Taldetasuna sentitu behar dugu, elkar aktibatzen. Elkarrekin egon, esperientziak trukatu, e(ra)giteko moduak ikusi...
- Whatsapp eta email gutxiago; aurrez aurreko gehiago, telefono dei gehiago. Parte-hartzeak erakargarri izan behar du. Asanblearismo zaharra baino, ekarpenak egiteko gune sortzaileak, jende interesgarriarekin harremana...

Euskaltzaleak antolatu eta saretzeko plana

Zertarako antolatu euskaldunak?

- Erabilera aktibatzeke prest dagoen oinarri soziala identifikatu eta trinkotzeko.
- Deialdi bat edo eskari bat egiten zaienean interpelatuta sentitu daitezen. Hartara aukera gehiago egongo dira aktibatu edo mobilizatu daitezen.
- Sentimendu hori sortzeko herritarrekiko harremana elikatu behar dugu, pertsona erreferenteak gugana hurbiltzea lehentasun bihurtu, eta lagun askoko sarea osatu.

Gure plana da:

- **Talde motorra.**

Euskaraldia 400 bat udalerritan antolatu da eta hainbat taldek eta erakundek hartu dute parte. Hots, Euskal Herrian badira talde motorrak osa ditzaketen muineko 300-500 euskaltzale (mugimenduko jendea, euskara teknikariak, Euskaraldiko liberatuak, euskalgintzako partaide aktiboak...).

- **Aktibistak.**

Horietako bakoitzak hilabete batean, bere auzo, sektore edo herriko 10/20 bat aktibista prestatuko ditu. Herriaren arabera, izan daitezke gutxiago edo gehiago. Eta beti egongo da 50 prestatuko dituen superaktibatzaileran bat!

- **Hedatzaileak.**

4.000 - 10.000 pertsona horiek beren inguruko lauzpabost elkarte, enpresa, talde edo saio irekietan zabalduko lukete zer egin nahi dugun (batez beste bakoitza 25/50 pertsona ingurura iritsiz). Baietz norbait 137ra iritsi!!

- **Hartzaileak.**


Hiru urrats horiek emanda, 150.000 - 400.000 lagunengana irits gaitezke zuzenean! Zuzenean!!

Kopuru horietara iristeko, ahalik eta aniztasunik handiena lortu behar dugu prestatuko ditugun aktibisten artean: adin-tarteetan, generoetan, jatorrietan, pentsaeretan...

Hau lortzen badugu, euskararen erabileran jauzi nabarmen bat eman ahal izango dugu! Izan zaitez zu ere bultzada horren eragile!

MUGARRIAK

1. Aldatu jarrera
2. Harremanak sortu
3. Sare bat irudikatu
4. Sare bat sortu
5. Taldearen funtzionamendua finkatu
6. Ekintzak antolatu
7. Euskaraldia antolatu
8. Indarberritu





**ALDATU
JARRERA**



ALDATU JARRERA

Euskara milaka eta milaka pertsonei inporta zaigu. Euskaraldia edo Korrika bezalako ekimenek eta euskararen aldeko egitasmo, ekitaldi eta manifestazioek erakusten digute aldiro. Komunitate edo herri oso bat osatzen dugu euskara barru-barruan daramagunok. Askotan uste dugu, ordea, jendeari bost axola zaioa euskara edo, are okerrago, ez dutela ezer egin nahi. Eta ez da egia.

Besterik da bakoitzak zenbateko konpromiso-maila edo praktika koherentea duen. Baina, hain zuzen ere, horregatik antolatzen dugu Euskaraldia, pertsona horiek erakarri, aktibatu, eta haien praktika linguistikoetan eragiteko.

Alda dezagun jarrera. Kexatzea edo etsipenean erortzea baino askoz hobea da mugitzea eta antolatzea. Ezintasunetik hitz egitea baino eraginkorragoa da eskura ditugun aukera errealak ustiatzea. Arazo guztiek dute konponbideren bat, eta konponbidearen puska on bat jendea batu eta antolatzean dago.

Horixe da, Euskaraldiari begira, gure buruari jarri diogun zeregin nagusietako bat: **ingurukoak hauspotzea** aktibatzaile izan daitezen, ikus dezatela elkarrekin lan eginez gero aldaketa posible dela.

Oso egoera desberdinetan egon gaitezke tokian toki. Abiapuntuak desberdinak izan arren, helburu bera izango

dugu denok; ahalik eta jende gehien mugiaraztea: lehendik ibilitakoak, eta, batez ere, Euskaraldira inoiz hurbildu ez direnak.

Asko ez dira beren kabuz ekintzak antolatzen hasiko, baina konfiantza dioten norbaitek zuzenean eskatzen badie, positiboki erantzungo dute.



Jo zuzenean inplikatu daitezkeela uste duzun horiengana, banan banan, lasai hitz egitera, eskaera zehatzak eta egingarriak planteatuz.



Euskararen erabilera suspertzeko mugimendua sortu/indartu nahi badugu, beharrezkoa izango da jende asko (ahalik eta gehien) jende askorekin egotea.

Aurrez aurre aurrena, talde txikitan gero, handiagotan ondoren... eta Euskaraldian denok batera.

Horretarako, **trebatu egin behar gara**, ahaldundu eta antolatu. Eta gure ahaleginak harremanak sortzera bideratu behar ditugu.

Motibazioa: jarrera aldatu

Motibazioa: nahi edo behar dugun zerbait lortzera mugiarazten gaituena.

Pertsona/talde bat ez da mugitzen nik nahi dudalako, berak nahi duelako baizik.

Antolatzea soluzioaren parte da, eta antolatzaile izatea jarrera kontua da.

Euskarari bultzada sakona eman diezaiokegu elkarrekin zerbait eginda. **Irtenbidea kolektiboa da**, errezetak badaude.

Pertsona/talde batek zerbait ez egiteko hiru arrazoi daude:

- ☞ 1. Ez daki: erakutsi egin behar zaio
- ☞ 2. Ezin du: baliabideak eman behar zaizkio
- ☞ 3. Ez du nahi: hau da konplikatuena, hemen sartzen da motibazioa

Baina jende askok nahi du euskara biziberritzea!

Euskara herritar askori inporta zaigu. Barru-barrutik bizi dugu. Bere egoera aldatu daiteke, hartan eragin dezakegu. Horretarako antolatu eta mugitu egingo gara.

Euskaraldiarekin erabileraren aldeko olatu handia sortu nahi dugu Euskal Herri osoan, aurretik inplikaturako guztiak bilduz eta jende berriarengana iritsiz.

IEPA!



Zer behar da norbait ekintzara akuilatzeko?

- **Ilusioa eta esperantza:** Aldaketa posible da. Hemen dago gure plana.
- **Ekimena:** Egoera aldarazteko gogoa, hobekuntza edo justizia nahia.
- **Premia:** Orain behar du, bidegurutzean dago euskara, ezin dugu itxoin.
- **Aktoreak:** Gu, zu.

Gauzak aldatu ditzakezu, zuk asko egin dezakezu. Zure parte-hartzea garrantzitsua da.



HARREMANAK SORTU

HARREMANAK SORTU

Euskararen egoerarekiko kezka duten herritarrekin hitz egin, elkar ezagutu, herrian zerbait egiteko borondatea erakutsi, gutxienekoren bat adostu...

Euskaraldiaz baliatu behar dugu, euskararen alde zerbait egiteko prest egon eta mugimenduarentzat interesgarriak izan daitezken **pertsonen sarea ehuntzeko**. Eta sare hori erabili behar dugu Euskaraldi indartsua eta zabala antolatzeko, eta euskararen aldeko dinamika suspertzeko.

Baina, norbait lehen aldiz gonbidatzen dugunean, tentuz prestatu behar dugu bilera hori. Lehen harremanak baldintzatu dezake pertsona horren jarraipena.

INTERESGARRIAK DIREN PERTSONEKIKO HARREMANAK NOLA BIDERATU?



- Jendea bileretara ekartzeko emailak eta watsappak ez dira bide eraginkorrenak. Pertsonalki egin gonbita, aurrez aurre (edo gutxienez, telefonoz) eta testuingurua eta helburuak azaldu.
- Bilera emankorra izan dadila. Arrazoi nagusia argi utzi, gai zerrenda zehatza eraman, eta denbora muga jarri. Inork ez daukagu denbora soberan. Bilera ez bazaie emankorra egiten, ez dira itzuliko.
- Bilerara joateko motibatuago sentituko dira pentsatzen badute bertan paper garrantzitsua jokatuko dutela. Ekintza plan bat sortzea, adib.
- Oso garrantzitsua: giro egokia sortu, lasai hitz egin eta iritzia eman dezaten.
- Hitz egin dezaten, galdera irekiak egin, ez “bai” edo “ez” erantzuteko modukoak: “nola ikusten duzu euskararen egoera?”...
- Jende guztia errespetatu. Baloratu positiboki haien ikuspegia, haien esperientzia, egiteko prest dauden edozein gauza...
- Elkarriketa ona bada, pertsonak ireki egiten dira. Pertsonak pixkanaka mugitzen gara. Ezezkoa eman dizuna, ez betirako ahaztu.
- Eta lorpen txikiena izandakoan denen artean ospatu, talde osoaren lorpen gisa.

BILERA JENDETSUAK EDO TALDE TXIKITAN?



- Jendea bilera batera ekartzeko aukera gehiago egongo da, baldin eta ezagutzen duen norbait baldin badago bilera horretan.
- Prozesuaren hasieran, bereziki, bilera txikiak egin eta parte hartzen duten pertsonak engaiatu. Ardurak eman eta konpromisoak garatzeak, jende gehiago inplikatu eta pertsona askorengana iristeko aukera ematen du.
- Bilera handi, jendetsuetan ezin duzu elkarrizketarik izan partaideekin, baina bai txikietan. Horrek harremanak sendotzen laguntzen du, eta harreman pertsonalak dira gakoa, ez ahaztu.
- Jende askoko batzarrak eraginkorrak izan daitezke antolakuntza eta mobilizazio prozesuaren fase aurreratuetan.
- Bost pertsonak gauza asko egin ditzakete. Kontuz ibili behar da honekin: jende gehiagoren zain gaudelako, dagoeneko gurekin daudenei zereginik ez ematea. Azkenean epeldu egiten da giroa, eta jendea urrundu.
- Identifikatu egin beharreko zeregin guztiak eta banatu jende zehatzen artean, epeak jarri eta guzti-guztien jarraipena egin. Galdera da ea nork egingo duen zer eta noiz? Eta gero ziurtatu behar dugu zeregin guztiak egin direla.

Jendea antolatu-aktibatzekeo entzun egin behar da, guk haiei hitz egin baino gehiago. Entzutea kosta egiten da, denbora eskatzen duelako eta solaskidea baino informatuago gaudela uste dugulako, baina funtsezkoa da haiei entzutea, jakiteko zerk motibatzen dituen.

Elkarriketa on batek ekintzara bideratzen du. Egin galdera irekiak, entzun ondo erantzunak, nola sentitzen den, nola ikusten duen egoera, eta batez ere, zer egin genezakeen egoera hobetu edo iraultzeko. Antzekoa esan digun beste baten kasua kontatuz. Jarraitu galderak egiten. Kezkatzeko, kexatzeko eta ilusionatzeko arrazoiak badituela erakuts diezaiokegu.

Pertsonak beren sentimenduak adieraz ditzaten erraztu behar da, eta ikusi behar dute esaten dutenarekiko benetako interesa dugula. Orduan galdetu ahal diezu: “Zergatik ez da/duzu/dute euskara gehiago erabiltzen?”, “Zer egin beharko genuke hemen (herrian, auzoan, lantegian, lagunartean...) euskararen erabilera aktibatzekeo?”. Esan zenezake zure ustez zer egin behar genukeen, baina eraginkorragoa da ideiak beraiengandik datozenean. Haien hitzak balioan jartzea garrantzitsua da. Kontuan izan behar dugu gure inguruan gertatzen denaren inguruko ezagutza partziala dugula, eta, beraz, besteek esaten duten horretatik ikasteko aukerak egoten direla beti.



ENTZUTEN IKASTEKO:

1. Benetako arreta jarri, gorde telefonoa, begiratu begietara besteei, saihestu distrakzioak.
2. Pazientzia eduki, ez pentsatu esatera doan dena badakizunik, ez hasi zure erantzuna prestatzen bera hizketan ari den bitartean.
3. Ez eten inoiz haren jarduna. Entzun esateko daukan dena.
4. Burua irekita eduki, espero ez duzun zer edo zer esango du.
5. Ez egin galdera bideratuegiak.
6. Jarri bere lekuan. Bere barrena husten utzi. Ez epaitu esaten duena.
7. Erakutsi benetan entzuten ari zarela. Galdetu esaten ari denari buruz.
8. Aurkitu batzen zaituzten puntu komunak. Denean ez dugu bat etorri behar. Ezberdintasunak onartu arazorik gabe eta adostasunak nabarmendu.
9. Ez sentitu ezer saltzeko premiarik. Antolatzaile-ekintzaile bat ez da saltzailea. Ulertu ondo bestearen ikuspegia eta ikusi elkarrekin zer egin ahalko zenuketen.

EUSKARA AKTIBATZAILEEN GIDA-LIBURUA

EUSKARALDIA euskararen erabilera aktibatzeko mugimendua





**SARE BAT
IRUDIKATU**




SARE BAT IRUDIKATU

Sarea osatzen hasterakoan, herri bakoitzeko egoerara egokitu behar gara. Ez du zertan elkarte bat izan behar, ez dugu zertan astero bildu behar. Kide bakoitzak erabakitzen duen dedikazio maila edukiko du: inplikazio handia izan, edo une/jarduera jakinetan laguntzeko konpromisoa bakarrik hartu...

Diana-grafikoa bat egin

Argi eduki behar dugu zer giza-multzo ditugun jomugan. Diana-grafiko moduko bat osatuko dugu:



Motorra

Erdigunean ekintzaile-antolatzaileak daude. Ezinbesteko taldea da. Zu ere tartean izango zara, agian. Hauek dira beti pentsatzen ari direnak nola antolatu gaitezkeen, zer egin genezakeen, eta nola erakarri dezakegun jende gehiago mugimendura. Izan daitezke liderrak edo ez. Edonola, gauzak aldatzeko gogoia, lanerako borondatea da hemen funtsa. Talde hau nahikoa osatuta egongo da leku batzuetan, eta beste batzuetan, osatzear edo hustuta eta ia hutsetik abiatu beharko da. Kasu guztietan aztertu beharko da nola (ber)osatu.

Aktibistak

Lehen zirkuluan aktibistak daude. Atxagak umorez esan zuen bezala, euskaldun patetikoak, hau da, euskara pathos-arekin, patuarekin lotuta, afektu handiz bizi dutenak. Beraiekin beti konta daiteke ekintzak aurrera eramateko, eta normalean, laguntzeko prest egongo dira. Informazioa zabaldu eta pertsona gehiago erakartzeko ere aproposak dira. Aurreko Euskaraldien antolaketa parte hartutakoak izan daitezke, sare hori zabaltzea komeniko den arren.

Aktibista hauek dira, talde motorrarekin batera, formazioa jaso ondoren, Euskaraldiaren mezua eta helburuak talde eta elkarteetara zabalduko dituztenak.

Sinpatizanteak

Bigarren zirkuluan daude, Atxagaren terminologia jarraituz, euskaldun sinpatikoak. Agian, ez dute ardura handirik hartu nahiko, baina gure ekimenak babesten dituzte, ekintzetan parte hartzen dute eta gauza sinpleak egiteko prest egon daitezke. Hauengana iritsi behar dugu. Euskaraldiaren ideia ahalik eta talde, erakunde edo enpresa gehienetara iritsi dadin, eta epelak berotzeko, elementu giltzarriak izango dira.

Urrunak

Hirugarren zirkuluan urrunak daude, epelak gehienak, hotzak ere bai batzuk. Ez dute euskara beren bizitzako gauza garrantzitsu bat bezala ikusten eta ez dute parte hartzen normalean, baina ez daude aurka. Moltzo honetako hainbat, sinpatizante edo Belarriprest bihurtzea lorpen handia izan liteke.

Aurkakoak


Zirkuluetatik kanpo daude, ekimena begi txarrez ikusten duten Antipatikoak. Ez galdu denborarik haiekin. Egunen batean agian zerbaitek aldaraziko die ikuspegia, baina orain mugimendu honetatik erabat kanpoan kokatzen dira. Debateak ez ditu gerturatuko, izatekotan esperientzia positiboren batek.

HELBURUA DA:



Epelen artean sinpatiak piztea; sinpatikoak aktibismora ekartzea; eta aktibistak ekintzaile-antolatzaileen motorreraino ekartzea. Hau da, herritarrak erdigunerantz mugitzea pixkanaka.

Talde motor bat behar dugu erdigunean, eta behar edo zeregin bat sortzen denean hura aurrera eramateko aktibista eta euskaltzale taldea, bolondresak, alegia.



**SARE BAT
OSATU**



SARE BAT OSATU

Euskalgintza jende mota jakin batentzako soilik den estereotipoa gainditu behar dugu. Asko eta askotarikoak gara euskaldunak eta euskaltzaleak.

Zure herriko mapa egin

Jendea antolatuta dago jada. Eskualdean edo herrian izan badiren talde, elkarte, enpresa eta erakunde guztien mapa egin beharko dugu aurrena.

Ondoren, berauetan eragin ahalmena dutenen zerrenda osatu eta haiengana jo beharko dugu. Bila ditzagun lider naturalak. Elkarte eta entitate guztietan daude erreferente moralak, arduradunez aparte, aukeratuak izan ez diren lider informalak. Eragin ahalmen handia dute taldeetan. Asko jada, euskararekin inplikaturik daude.

Baina beste batzuk, agian, ez dute gehiegi inplikatu nahiko, ez dute publikoki agertu nahiko gaiari lotuta, eta beren hasierako aurreiritziak gainditu ditzaten ondo azaldu beharko dizkiegu gure asmoak.

Gogoratu “diana”: aktibistak joango dira asanbladetara seguraski, hortik behera zaila izango da. Helburua, aktibistak sortzea da.

Diana-grafikoa osatu

Diana-grafikoa marraztuta, talde, elkarte eta erakunde horietako erreferentziazko pertsonen izenak idatziko ditugu zirkulu bakoitzean: kultur taldeetako liderrak, kulturgileak, kirol arduradun eta entrenatzaileak, enpresetako ordezkariak, mugimendu sozialetakoak... Zabaldu ikusmira: orain arte Euskaraldian inplikatu gabekoak, euskaraz egiteko ohiturarik ez duten aktibistak... Aurreiritziak astindu!

Talde motorrerako lortu nahi ditugun pertsona horiek ez dira gugana etorriko, guk joan beharko dugu beraiengana. Eta giltzarriak dira mugimenduarentzat, jarraitzaileak dituztelako eta taldekideentzat erreferente direlako.

Liderren artean ikusi behar da zeintzuk dituzten aukera gehien dianaren erdigunerantz edo aktibisten zirkulura hurbiltzeko. Horiek animatu eta zaindu bereziki. Lider hauetako bakoitzarekin inbertitutako denborak emaitzak ekarriko ditu gero.

Denbora guztian joan behar dugu etengabe talde antolatzailea sortzen.

Nola mugitu dezakegu jendea zirkuluen erdigunerantz? Lagundu behar diegu pausoz pauso joaten. Eta saihestu erdigunean beti berak egon daitezen edo aukeratuen talde moduko bat bihurtzea.

TALDE MOTORRAREN OSAKETAZ



- Aurrez aurreko elkarriketak ahalik eta jende gehienarekin. Hau da modurik eraginkorrena jendea inplikatzeko. Norbaitek zerbait zuzenean eskatzen dizunean, askoz errazagoa da baiezkoa ematea.
- Taldea osatuko duten pertsonen hautaketak berebiziko garrantzia du. Genero aldetik orekatua, hizkuntza-ibilbide desberdinetakoak, ideologikoki eta tribu urbano aldetik plurala... Beren eremuan itzala eta hausnartzeko eta eragiteko gaitasuna dutenak, harremanak zaintzen eta talde giroa sortzen dutenak...
- Profil eta jarduera ezberdinetako zenbat eta jende gehiago lortu, handitu egiten da jendea antolatu, lanak ongi bete eta helburuak lortzeko gaitasuna.
- Zenbat eta jende gehiago taldean, eta zenbat eta banatuago zereginak, orduan eta lan eta zama gutxiago kide bakoitzarentzat.
- Berebiziko garrantzia du ordezkariak txandakatzen joatea. Horrek ikustarazten digu guztiona dela mugimendua, guztiok jartzen dugula zerbait. Txandakako ordezkaritzak konpromisoa eskatzen du, baina denbora mugatuagoan.

Garrantzitsua da argi uztea bakoitzaren inplikazio maila nahi/ahalen araberakoa izango dela. Ez jarri exigentzia langarik. laguntzeko ez da zu bezain inplikatua izan beharrik.

Zuri, euskaltzale fin horri

Ez saiatu heroi bat izaten. Zeure burua zeregin guztien erdigunean kokatzeko inpultsoa baztertu. Taldean eta elkarlanean lortzen dira aldaketak. Antolatzaile on bat besteen kezka eta ametsetatik elikatzen da eta besteak motibatzen ditu talde gisa antolatu eta jokatzeko. Talde-lanean lortzen da boterea sortzea.

Sarritan, egin behar duguna sinplea da baina ez erraza:

- Ez da erraza jendearekin aurrez aurre hitz egiteko, haiei ondo entzuteko eta konbentzitzeko denbora ateratzea.
- Errazagoa da lehendik ezagutzen ditugun liderrengan konfiatzea beste behin, baina eraginkorragoa da lider berriak erakartzea.
- Errazagoa da email kolektibo bat bidaltzea, baina eraginkorragoak dira pertsonalizatuak.
- Udalera joateko, adibidez, hobe da zu bakarrik joan baino, norbaitekin joatea.
- Eraginkorragoa da norberak denbora gutxian egin dezakeen hori beste parte hartzaile batek denbora luzeagoan egitea. Ikas dezagun delegatzen.

Erreferenteak erakarri

Erreferentziazko pertsonak inplikatzeari lortzen den heinean (aktibista gisa, lan taldeetan edota ekintza zehatzetan parte hartzeko), egin beharreko antolakuntza eta dinamizazio lanaren zati handi bat egina egongo da.

Ez dezagun pentsa soilik pertsona ezagunak izan daitezkeela erreferente. Aisialdian aritutako gaztea, beste mugimenduetan ibilitakoa... izan daitezke erreferente baliotsuak.

Bolondresak hurbildu

Bolondresak ere bilatu beharko ditugu. Ahalik eta gehien. Bolondres bakoitza zer egiteko prest dagoen ikusi eta haiei zeregin zehatzen bat eskatu.

Mugimendua indartsuagoa izango da euskaldun guztiek bertan parte hartzeko aukera dutenean. Euskaraldian orain, agian modu jarraituagoan etorkizunean.

Mapa egiten dugunean, ikusi ahal izango dugu, bestalde, zein eremutan gauden ahul eta non behar dugun jendea lortu. Mapa ere taldean egin behar dugu, denon artean.

Antolatzaile edo aktibista bakoitzeko hamar bolondres beharko ditugu.

PERTSONA ERREFERENTEAK ERAKARTZEKO IRIZPIDEAK



✂ E-mailak, telefono mezu orokorrak, sare sozialak:

- Ez dira irakurtzen.
- Jada konbentzitua dagoen jendeak irakurtzen ditu.
- Ez dute balio erreferentziazko jende berria erakartzeko.
- Honela, jendeak ez ditu konpromiso berriak hartzen.

✓ Jende berriarengana iristeko, konpromisoak lotzeko, ezinbestekoa da:

- Bakarkako kontaktu zuzena.
- Enpatia.
- Irtenbide eta proposamen sinesgarriak/egingarriak eskaintzea.
- Itxaropena sortzea.
- Beharrezko sentiaraztea.
- Eskaera zuzena egitea.

Taldekiddeen arteko harremanak sustatu


Ezin duzu espero pertsonak elkarrekin lan egitea oraindik beren izenak ez baldin badakizkitez. Talde motorreko kideek ahalegindu behar dute mugimenduko jende guztiak elkar ezagutu dezan. Elkarbizi egin behar da, gero antolatu eta mobilizatzeko.


Aukerak sortu behar ditugu pertsonak elkar ezagutu dezaten. Harremanak hasieratik lantzen badira, sendoagoa bihurtzen da taldea, eta harremanak sendoak direnean, kide guztiak seguruago sentitzen dira eta errazagoa da arriskuak hartzea. Harremanak azalekoagoak direnean, zailagoa da zailtasunei aurre egin eta urrutira iristea.

HOBE DA...



- Hurbileko guztiei posta elektronikoz edo telefono aplikazio bidez mezuak bidaltzea baino, banan banako elkarrizketak izatea.
- Unean uneko zereginetan buru-belarri jardutea baino, euskaltzaleak antolatzea.
- Konfiantza eta harreman ona dugun ordezkariekin eta lankideekin soilik aritzea baino, erreferentziazko pertsona berriak bilatzea.





TALDEAREN FUNTZIONAMENDUA



TALDEAREN FUNTZIONAMENDUA

Taldea

Taldea lantalde emankor bihurtu behar dugu. Talde on bat ez da berez sortzen, harremanetik eraiki behar da.

Zaindu beharreko 3 dimentsioak:

1. Helburuak adostu eta ekintzak planifikatu eta jarraipena egin.
2. Talde kohesioa: bilera motibagarriak, talde giro ona izan.
3. Taldekideen behar indibidualak asetu.

Helburuak

Talde batek helburu komun adostua du, eta hori lortzeko proiektu bat partekatzen du. Horiek bihurtzen dute talde.

Beti gogoan izan zure helburua ez dela (soilik) ekintza zehatz bat aurrera ateratzea. Gero eta jende gehiago erakartzeko ahalegin permanentean ari gara, erdigunera ekarri nahian, euskararen erabilera soziala aktibatzeke sare sendo eta iraunkorra sortzen. Eta eguneroko bizimoduan Ahobizi edo Belarriprest normal jokatzeko dutenak gero eta gehiago izan daitezen ahaleginduz.

Eta aintzat hartu helburuak **ZELAN** izan behar diren:

Zehatzak, **E**rrealistak, **L**orgarriak,
Aldi baterakoak eta **N**eurgarriak.

FUNTZIONAMENDUA ERAGINKORRA ETA MOTIBAGARRIA IZAN DADIN



- Ardurak zerrendatu eta banatu egiten dira, kideen nahi/dohainak kontuan izanda.
- Kargak ez dira pertsona gutxi batzuengan pilatzen, taldea sendotuz.
- Guztiek ulertzen dituzte ezartzen diren helburuak.
- Zereginei modu sistematikoan ekiten zaie.
- Deliberazioak atmosfera informal eta atseginean egiten dira.
- Kideak errespetuz tratatzen dira.
- Kideak helburu kolektiboarekin konprometitzen dira eta ekarpenak egiten dituzte.
- Lankidetza espiritua gailentzen da.

Bilerak

Bilerak modu egokian bideratzea oso garrantzitsua da. Hona irizpide orokor batzuk:

- Bilerak egin modu planifikatuan.
- Helburuak adostu.
- Bilerak ondo prestatzea ezinbestekoa da.
- Hasierako eta bukaerako ordutegiak errespetatu, ez luzatu.
- Hurrengo bilera data, ordua eta lekua adostu.
- Zaintza giro ona. Erabakiak elkarrekin hartu.
- Ekarpenen aitortza egin.

BILEREN OINARRIZKO DINAMIKA



Bilerek maiztasun bat izan behar dute. Euskaraldia gerturatu ahala handitu daiteke.

- Aurretik prestatu behar dira. Horretarako tresnak: Gai zerrenda eta Bilera-akta.
- Bi tresna hauek bilerak zuzentzeko eta landutakoari jarraipena emateko erabili.

Komeni da bileretako rol/funtzioak bilera bakoitzean aldatzen joatea.

Ez dira gomendatzen bi ordutik gorako bilerak, arreta gaitasuna jaitsi egiten delako.

Bileran gai bakoitzari emango zaion denbora zehaztu.

Bilerak espazio desberdinetan egin daitezke, sektore gehiagotara iristeko. Leku informalak ere aintzat hartu, egoeraren arabera.

Ekintzen arduradunak izendatu eta epeak markatu.

Komunikazioa

Komunikazio zuzena lehenetsi.

Email kolektiboak, whatsapp taldeak.. antolatzeko tresna lagungarriak dira, baina ez dira antolaketa. Onak dira elkarrizketak sortu eta ekintzak bultzatzen badituzte.

Bidaltzen dugun artikulu, meme, eskuorri, ohar bakoitzak kideen arteko elkarrizketak sortzeko balio behar du (“Kaixo, ikusi al duzue hau? Zer iruditu zaizue?”...).

Banaketa sare bat eduki behar dugu informazioa norabide guztietan zabaltzeko, ez soilik goitik behera.

Antolaketa—modua

Modu ezberdinetara antolatu gaitezke: denak batzen gaituen sare gisa, zeregin zehatzen inguruko taldea, entitate desberdinen ordezkariak batzen dituen taldea... Egitura zehatza ez da hain garrantzitsua, sare sendoa osatzea baizik, hango edozeinek beste edozeinengana iristeko erraztasuna izan dezan.

Demokratikoki antolatu behar dugu beti. Gardentasunez, horizontaltasunean.

Adostu funtzionatzeko era. Ez dugu nahi ordezkari batek “hau da plana esatea”, Euskaraldiaren irizpide orokorretatik at. Askoz hobe da jendea prozesu osoan txertatzea

eta plana guztion artean diseinatzea. Errazago sartu eta aktibatuko dira.

Jendeari eskaera zehatzak egin. “Erraz” egin dezakeen zerbait. Argi eta garbi esan zenbat denbora beharko duen hori egiteko, zergatik eta zertarako ari den egiten eta nola txertatzen den plan orokorrean. Zehaztu egitekoa (deiak egitea), noiz (astearte edo asteazken iluntzean), helburua (20 pertsona kontaktatzea) eta erronka (x lagun batu nahi dugu x saioan).

Esperantza pizten da geure boterea benetakoa dela ikustean, hau da, asko garela eta plan bat dugula egoera aldatzeko.

DENBORAREN KUDEAKETA



- Erremintak: Agenda, zereginen zerrenda, plangintza.
- Zeregin bakoitzarentzat denbora jakin bat gorde: analisia eta hausnarketa, planifikazioa, bisitak, bileren prestaketa, komunikazioa, emailak...
- Zeregin bat hasi eta bukatu.
- Zeregin zehatzen ondoren, ez utzi mugimendua itzaltzen edo epeltzen. Sareko pertsonekin harremana mantentzen saiatu.

BANAN BANAKO ELKARRIZKETA EGITURATUAK

Ez da gure ohiko funtzionatzeko modua. Normalean entzun ordeztu, hitz egin egiten dugu; eta galdera irekien ordeztu, itxiak egiten ditugu. Horregatik behar da prestaketa eta praktika, eta praktika.

Hasi aurretik kontuan izatekoak:

- Ez da edozein elkarrizketa.
- Egitura zehatza du (6 urrats).
- Ongi prestatu behar da (eta egokitu helburu eta egoera bakoitzera).
- Helburu jakinak ditu: pertsona zehatzak gerturatzea eta taldean inplikatzeko.

0. Testuingurua eta prestaketa.

Zehaztu zein den elkarrizketaren helburua eta testuingurua eta prestatu ongi elkarrizketaren egitura eta galderak. Aurreikusi erantzunak eta arazoak, eta prestatu galdera berriak/erantzunak.

1. Aurkezpena: errealitatea ezagutu eta arazoak aurkitu.


Elkarrizketa giroa sortu (agurra, galdera orokorrak...). Galdera irekiak egin, iritzia eta kezka nagusiak ezagutzeko.

2. Kezkek eta premiak aterarazi eta ilusioa astindu.

Kezkekin, arazoekin, haserreekin edo ikusten diren beharrekin enpatizatu. Kezka konpartitu eta indartu. Egoeraren ondorioak zein izan daitezkeen hitz egin.

3. Egoera hobetzeko gakoak identifikatu.
Maila indibidualean, nahiz sozialean: erakundeak, elkarteak, zerbitzuak, giza-talde jakinak... Solaskideak nortzuk izan daitezkeen identifikatu (ez aurreratu, utzi lankideei ondorio horretara iristen). Egoera bideratzeko ahalmena dutenengana jo. Galdera irekiak egin.
4. Egoera hobetzeko gure proposamenak azaldu.
Adibideak jarri: irabazteko plan sinesgarri bat. Itxaropena aurkitzen saiatu. Egoera hobetzeko balizko aukerez modu irekian galdetu. Gure proposamenen kontrastea egin (aurrez azaleraturiko kezka eta arazoei erantzuten dieten heinean). Antolatu eta elkarrekin eragitearen garrantzia nabarmendu (oraingo eta etorkizuneko egoera hobetzeko eta arazoak konpontzeko).
5. Konpromisoa eskatu.
Galdera itxia; elkarrizketaren puntu nagusia. Hitz egindako planaren eta proposamenen inguruko iritzia galdetu.
Egoera hobetzen saiatzeko bere parte hartzearen garrantzia azaldu.
Konpromiso zehatza eskatu (bilerara etortzea, egitasmoan parte hartzea, konpromiso zehatzak hartzea...)
6. Hurrengo urratsak
 - Hurrengo pausoa zein izango den adostu.
 - Hurrengo hitzordua itxi.





**EKINTZAK
ANTOLATU**



EKINTZAK ANTOLATU

Euskaraldiaren antolaketari begira, oso egokia izan daiteke aurreko hilabeteetan ekintzaren bat antolatzea: giroa berotzeko, jendea elkartzeko, gaia kaleratzeko, erabilera areagotzeko... Helburua da euskararen inguruan zerbait egiteko gogoia erakustea, jende berria bistaraztea, jendea mugimendura erakartzea...

Normalean ekintza txikiren batekin hastea izaten da onena, “erraz” lor daitekeen zerbait. Helburu txiki batean gertukoak inplikatzeko, emaitza positiboak lortzeko gai garena eta elkarrekin gauzak lor ditzakegula ikustarazteko balioko digu.

Baina normalean egiten duguna baino haraxeago joan, beste modu batera jokatzeko ahalegindu, jende gehiago erakarri ahal izateko. Saiatu behintzat!

Zeregin eta helburu txikiekin hasi, ondoren, intentsitate hori igotzen joateko, baina beti ere, inor atzean utzi gabe, kontuan izanda epe luzerako mugimendu bat sortu nahian gabiltzala.

- Hasierako lorpenak oso garrantzitsuak dira nahiz eta txikiak izan.
- Elkarrekin dugun indarrak jabetzea funtsezkoa da.
- Ekintzek ikusgarritasuna izatea edo publikoak izatea komeni da.

Demagun,

- Kartel batean euskararen egoerari buruzko esaldi bat idazten du bakoitzak, izen-abizenak (argazkia?) jarrita, eta herrian zabaltzen dugu.
- Herriko elkarte edo erakunde batek X eskaerari baietz esatea lortu dugu.
- Edo herriko kirol elkarte batek bozgorailuetatik euskaraz (ere) egiten hastea.

Proposatzen den edozein ekintza edo ekimenek, ezinbestean, antolakuntza indartzea izan behar du helburuetako bat.

TALDEKIDEEN PARTE HARTZEA SUSTATU



- Guk antolatutako egitasmo eta ekintzetan errazago eta konbentzituago hartzen dugu parte. Guk pintatutako/inprimatutako kartel bat dagoen lekuetan gusturago egoten gara....
- Ekitaldi jendetsu bat prestatzen ari bazara, adibidez, antolatu aurrena kartelak eta pankartak egiteko festa moduko bat. Jendeak gaiaz hitz egiteko balioko du, batzeko, beren sormen gaitasuna erakusteko. Eta lanean aritu direnek gero harro parte hartuko dute ekitaldian. Eta egin hori kalean, jendeari erakutsiz badela giharra herrian eta ongi pasatzen duzuela!
- Demagun euskararen aurkako beste ebazpen bat ateratzen dela. Ingurukoei eska diezaiekezu lanera paparrean xingola beltz batekin joatea, gorriz jantzita edo txapa bat jarrita. Lantokian gaiaz hitz egiteko aitzakia sortuko da, ekimenak zabalpena badu medioetan agertuko da...





**EUSKARALDIA
ANTOLATU**



EUSKARALDIA ANTOLATU

Euskal Herri osoan, denon indarrak batuta, eragin zabalagoa lortzeko.

Antolaketari dagokionez, gutxieneko hauek bete beharko genituzke:

- Lantalde Teknikoak eta Herri Batzordeak elkarlan estuagoan jarri.
- Eskualde mailako tailerrak egin.
- Herri Batzordeekin “trebakuntza asanbleak” egin:
 - *Herri Batzordea osatzeko herritarrak nola lortu.*
 - *Taldea nola motibatu, zaindu eta sendotu.*
 - *Ardurak banatu, planifikazioa (zer, noiz, nork), bilerak sistematizatu.*
 - *Pertsona erreferentzialak nola inplikatu.*
 - *Momentu jakinetan jende gehiago nola batu.*
 - *Babesik handiena biltzeko kanpaina nola egin.*

Komunikazioari dagokionez, **mezu gutxi eta argiak**:

- EUSKARALDI indartsua behar dugu.
- Erabilera aktibatzea helburu duen ariketa soziala da.
- Hizkuntza ohiturak/inertziak aldatu nahi ditugu.
- Ahobiziak aktibatu nahi ditugu: lehen hitzetik, euskaraz ahalik eta gehien egin dezagun beti.
- Belarriprestak ere parte hartzera animatzen ditugu, euskarazko elkarriketak edo elebidunak ahalbidetzeko.
- Eskatzen zaigu txapa janztea, eta euskaraz egitea.

Bisibilizazioa, aktibazioa, gizarteratzea

- Irudia: euskarriak.
- Aurpegiak eta ahotsak: bozeramaletza korala.
- Ekintzak: sormena, gozagarriak...
- Ekintza berri(tzaile)ak antolatu behar ditugu, eta ahal dela euskararen erabilera muinean dutenak. Hona adibide iradokitzaile batzuk, noiznahi (Euskaraldian edo Euskaralditik kanpo) egin daitezkeenak:
 - Karaoke lehiaketa bat.
Eta herriko elkarte guztiak parte hartzera gonbidatu herriko plazara.
 - “Mikro irekia” saioak.
Musikariak zuzeneko musika inprobisatzen, eta nahi duten herritarrek txisteak kontatu, poemak errezitatu, speech bat bota... Herriko elkarte guztiak parte hartzera gonbidatu daitezke. Dinamizatzaile batekin hobe.
 - “Gozaldia Eguna”.
Egun berezia, herriko kultur elkarte guztien emanaldi banarekin.
 - Bingo musikatuak.
 - “12 ordu euskaraz” herriko elkarte/erakundeekin.
 - Euskarazko Eskaintzen Azoka.
Herrian euskaraz burutu daitezkeen ekintza edo zerbitzuekin.
 - Euskararen Bisita Gidatua herrian.
 - Hizkuntzen jaia.
Herriko hizkuntza-komunitateen partaidetzarekin.

- Musika gaua.
Herriko taldeekin, euskarazko abestiak kantatuz.
- Euskararen aldeko mezuak semaforoetako kaxetan.
- Euskarazko grafiti edo muralen jaialdia.
- Meme lehiaketa...

Aurrerapausoak, lorpenak eta bizipenak partekatu

- Datuak, kopuruak eta estatistikak eman daitezke, baina benetako kasu zehatzak erakutsi behar ditugu, batez ere.
- Zeregin kolektibo batean gaudela ikusi eta sentiarazteko, elkar lagundu eta adoretzeko, indar handia du herritarren bizipenak eta testigantzak konpartitzeak, hezur-haragizko pertsonen istorioak kontatzeak: sinesgarritasuna, eredu egingarriak, emozioak, hunkigarritasuna.

“Euskaraldiari esker hau lortu nuen. Eta orain hau lortu nahi dut”.

Lantokian, kuadrillan, lagun bat(zu)ekin, etxean...

- Hedabide orokorretan eta tokikoetan, agerraldietan, irratsaioetan, sare sozialetan... erreportajeak, elkarriketak, lekukotzak, irudi grafikoak eta abar...

“Gaur jende gehiena saiatu da niri Euskaraldia errazten” / “Goizean egoera barregarri/arraro bat egokitu zait bizitzea” / “Gaur euskarafobia pixkat sumatu dut une batean” ...

- Bideo laburrak: Youtube, Instagram, Twitter, Tik Tok...
- Topaketak parte-hartzaileentzat tokian toki: terapia kolektiboa, txute kolektiboa.

Entitate/erakundeen konpromiso publikoak

- Behar handia dago lorpenak erakusteko. Berebiziko garrantzia du puntu honek.
- Euskaraldiak eragina duela erakutsi behar dugu. (Esan ez, erakutsi). Eta ezin dugu ardura guztia herritarren esku utzi.
- Gero eta nabarmenago geratzen dira entitate/erakunde handi batzuen inkoherentziak. Euskaraldirako konpromiso publiko zehatzak har ditzaten lortu behar dugu.
- Eta zenbat eta lehenago lortu, hobe, entitate gehiago animatu/bultzatzeko.
- Erdi-mailako arduradunen garrantzia eta inplikazioa funtsezkoa izango da zeregin honetan.

Influencer-ak inplikatu

- Klean zein sarea nabarmentzen diren pertsona dinamiko edo mediatikoak inplikatzeko ahaleginak egin.
- Euskaraldiari bisibilizazioa emateko, eta eragin ahalmena ere eduki dezaketelako, bakoitzak bere jarraitzaileengan.
- Adin, jatorri, bizileku eta tribu urbano guztietakoak interesatzen zaizkigu. Aurrekoetan parte hartu dutenei eutsi, baina ohikoak ez diren aurpegi berriak ere inguratu.
- Haiengana banan-banan jo eta argudioekin asmatu beharko da, eduki/erronka/jolas posibleak proposatuz ere bai kasu batzuetan.
- Bakoitzak, bere abiapuntuko praktika linguistikotik zer aurrerapen egin dituen zabaldu dezala jarraitzaileen artean, haiek ere animatuz gauza bera egitera.

16 urtetik beherakoak “Xaxatzaile”

- 16 urtetik beherako askok parte hartu nahi dute, modu batera edo bestera. Komunitate handia osatzen dute, eta hezkuntza zentroetan tresna gutxi dute.
- Haurrei eta nerabeei Euskaldian “Xaxatzaile” izateko proposatuko genieke:
 - Ikastetxeetan trebatu egingo lirateke: hizkuntza ohiturei buruz, etab.
 - Gero, gurasoak eta inguruko helduak, arretaz entzuteaz gainera, euskaraz egitera xaxatuko lituzkete.
- Euskaldun sentitzen ez diren haurrekin lanketa berezia egin daiteke.
- Horrez gain, irakasleek autoritatea dute gurasoei ekintza zehatzak eskatzeko: etxean euskarazko edukiak kontsumitzea, dakiten euskara erabiltzera bultzatzea, kartelak jartzea, Euskalaldiaren ekitaldietara joatea...

Gazteak libre

- Ona litzateke ahalik eta gazte gehien inplikatzeari Herri Batzordeetan, edo gutxienez, antolatzen diren ekintzetan. Gazteek parte hartzea nahi baldin badugu, beraingana hurbildu eta entzun egin behar ditugu aurrea.
- Antolakuntzan inplikatzeko aukera guztiak eskaini, baina baita, beraiek modu autonomoan eratzekoa ere. Indarrak metatu behar dira aurrelanketan.
- Euskaraldian antolatuko diren ekintzak bezalakoak edo antzekoak antolatu ditzakete beren kabuz: herriko taldeen kontzertua, karaokea, mikrofono irekia...
- Eta modu are libre eta autonomoagoan ere jokatu dezakete noski, Euskaraldiari nahi duten bezalako ekarpena eginez.
 - Demagun unibertsitateetan mintzodromo-
asambleak antolatzen dituztela “unibertsitatea nola euskaldundu” gaia edo besteren bat lantzeko.





INDARBERRITU



INDARBERRITU

Nahi eta ahal dugun unean eta nahi eta ahal dugun intentsitatearekin: harremanei eutsi, antolatzaileen taldea zaindu, jendea erakarri, herrian euskararen erabilera areagotzeko mugimendua bizirik mantendu, egitura finkoagoa antolatu...

Talde baten boterea, une jakin batean ekintza jakin baterako mobilizatu dezakeen jende kopuruaren araberrakoa da. Beraz, neurtu, orain eta gero, zer-nolako babes sarea duzuen.

Hainbatero, herriko mapa eta “sare bat osatu” ataleko grafikoa gaurkotu. Egin zenuten liderren identifikazioa errepasatu, bereziki, zuen irismena ahulagoa den eremuetan. Nork eduki dezake eragina han? Nork eragin dezake itzal handiko pertsona horiengan?

Pertzepzioa errealitatea bezain indartsua da. Beti daude bi gudu: gertatu dena eta jendeak hartaz duen pertzepzioa. Bigarren hau aurrenekoa bezain garrantzitsua da.

Nabarmendu beti lorpenak, baita txikienak ere. “Lehenengoz denok batzea lortu dugu”, “Lehenengoz euskara entzun da/egin daiteke halako lekutan”... Garrantzitsua da hori. Lorpen txikienari ere zukua nola atera ondo aztertu.

Aldian behin, parte hartzen ari garen kide “guztiak” batu behar ginateke. Nola goazen ikusteko, esperientziak partekatzeko, elkarri poza eta adorea emateko. Eta, batez ere, ez gaudela bakarrik ikusi, eta txute kolektiboa sentitzeko: herriko errealitate soziolinguistikoari buruzko datu berrien aurkezpena izan liteke, edo partaide guztiek bat egingo dugun jaialdi bat. Tarteka ere antolatu “Aktibatzaile eskolak”, trebakuntza saioak...

Hazten ari den komunitate bateko partaide zara, euskararen erabilera soziala aktibatzea helburu duen mugimendu batekoa. Euskaraldia urrats bat da, baina euskararen biziberritzea arnas luzeko mugimendua da. Bakoitzak bere ekarpena egingo du; ahal duena, ahal duenean...

Batzuetan, prestaketa lanak egin eta urteetara sortzen dira mugimendu sendoak.

Jendea batuta mantentzen duena, arrakastak eta porrotak gorabehera, honako hau da: gutako bakoitza baino askoz handiagoa den zerbaiten parte sentitzea.

Datorren Euskaraldia bultzada indartsua izango da zentzu honetan.





*Elkar mugituz
egingo dugu*

